

{ asteari zeharka begira } Mikel ZUBIMENDI BERAŠTEGI

Euskara asto makilakatu bezala tratatzeko kirolaz

Semearen whatsapp mezua jaso dut. Bideo baten loturarekin dator, “Burdin Hesia” du grazia eta euskararen inguruko politikez hitz egingo dutela aurreratu dit. «Ados al zaude?» galdetu dit, eta, ikusi dut, bai. Espantuz. Desolazioa baita. Lehenago, min-kideak ildo berean doan beste mezu bat igorri zidan. Pribilegiatua naiz: erretiroa hartu duenetik goizeko 07:00etarako prentsaren errepasoa egiten duen animalia politikoa da, eta ez dio bakar batek ere ihes egiten. “Hizkuntza-instituzionalizazio burgesa” titulua zuen; hitz leun-leunetan esanda, beste astakeria bat.

Irakurri eta ikusi ditut biak. Ene! Ene! Euskararen inguruan horrelakoak esanez etortzekoa bada proletargo deritzonaren iraultza sozialista, bene-benetan, bihotz-bihotzez, bota dezagun zerri askara! Euskarak ondo aspalditik daki zer den asto makilakatu bezala tratatua izatea, baina orain horrela egurtzeak ez dauka izenik. Euskaraz makilakatzan da gainera, mingarriago, beste hark esango zukeen bezala 'ni ez naiz arrazista lagun beltz bat dudalako' esanaren pareko.

Bai, badakit hainbatek elikatzen duten atmosfera zein den, ezaguna da irakaskuntzako eztabaidetan ikastolak ehizatzeke debekualdia amaitu dela. Eta ehiztari pila bat dabilela sueto, «pribilegioa», «elitea», «klasismoa» eta gisako perlak tirokatuz. Errima bera daukate euskarari hor egiten zaizkionek, kasu zehatz hauetan, baina turboa jarrita.

Ez da kontu berria. Euskara egurtzeko kirola aspaldikoa da. Lehen, aurrerabidearen izenean, euskalduna ezjakina, abarkaduna, trauskila zen bezala, orain, proletargoaren bandera hartuta, «pribilegiatuen ghetto», «folklore-auzietarako soilik erabilia», «elite intelektual eta kultural bati lotua», «negoziorako aproposa» eta horrelakoekin dabilta. Baina lehen bezala gaur

ere, ubeldutako izterra edo apurtutako hezurra konpontzea baino gaitzagoa da zauritutako arima sendatzea. Ondo daki hori euskarak, ondo eskoletan makilakatu zituzten euskaldunek.

Ez naiz ni izango euskalgintzaren inguruan osoko zuzenketak planteatu ahal direla ukatuko duena. Hizkuntza eta herria makal ikusten dituenari errespetua erakutsiko ez diona. Edo duela mende erdi zegoen espektatiba, «hau ekarriko dugu» konbentzimendua, gauzatu ez delako kezka duenari. Edo euskara hizkuntza sozial hegemoniko batera iristeko itxaropenik ez daukanari. Niretzat, ordea, euskara ustez lur jota eta dena kontra duela dirudien momentuetan da «arriskutsuen». Gaitasuna dago gutxien espero den unean indartzeko eta aukera berriak sortzeko. Hori erakutsi

Irakaskuntzako eztabaidetan ikastolak ehizatzeke debekualdia amaituta, ehiztari pila bat dabil «pribilegioa», «elitea», «klasismoa» eta gisako perlak tirokatuz

da. Kiniela eta pronostiko guztien kontra, sekulako kostuekin, jendearekin eta merituarekin.

Gure hizkuntza «bidegabekeriak justifikatzeko aitzakia», «soldata baxuen, lan baldintza okerrean, 'kaurari' emandako ordu estren erruduna», «errenta altuetara iristeko tranpolina» eta halakoekin makilakatzeko kirol ibilbidea (edo karrera politikoa) egitea izugarrikeria da. Dena ez da zilegi: euskal arima makilakatzeko, euskararen kontra horrelako «perlak» tirokatuz euskaldun jendea mintzea, eta hemen ez dela deus gertatzen pentsatzea. Aski da! Niretzat, onartezina, pasatzen utzi ezinezkoa. Horrela erantzun nion semeari, bost aldiz gordinago. Bere mezua jaso berri dut: «Ondo aita, ondo». •